



Internet eta Sare Sozialak

Arriskuak eta babesteko mekanismoak



GROOMING-EN ADIBIDEA

LucySoto. Kaixo barkatu gehitu bazaitut.

Bea. Kaixo.

LucySoto. Es k zerbait garrantzitsua daukat esateko.

Bea. Niri? Zer?

LucySoto. Zure pasahitza eta galdera sekretua aldatu dizut zure msn ixten baduzu ezingo duzu ireki. Zure msn lapurtu dizut bueltatuko dizut.

LucySoto. Fabore bat egitea bakarrik nahi dut. Erantzun edo zure msnen sartuko naiz.

Bea. Aizuuu nola dakizu nire gakoa?

LucySoto. Zure galdera sekretua oso erraza zen.

LucySoto. Egingo didazu eskatu nizun mesedea?

Bea. Ze mesede zen?

LucySoto. Ezagutzen duzu Rosita bat?

Bea. Bai ezagutzen dut.

LucySoto. Berari ere gauza bera egin nion duela 2 aste eta bere msna itzuli egin nion mesede bat egin zidalako.

Bea. Ze mesede zen?

Bea. Lehendabizi jakin nahi dut norekin ari naizen.

LucySoto. Lucy dut izena eta 14 urte ditut zuk?

LucySoto. Mugitu zure msnen sartuko naiz eta ez hitz egin inorekin.

Bea. Bea.

Bea. Mesedez bueltatuko didazu msn?

LucySoto. Lehendabizi jarri cam-a ezagutzeko ok?

Bea. Ok.

LucySoto. Ez zaitut ondo ikusten. Jarri ondo..

Bea. Orain?

LucySoto. Ok zure lagunari eskatutakoa eskatuko dizut.

LucySoto. Lehendabizi zuk jakitea nahi dut les naizela molestatzen zaitu?

LucySoto. Galdetu zure lagunari ze eskatu nion eta gero esan ea egin dezakezun ok.

LucySoto. Baina mugitu.[]

Bea. Bueltatuko didazu msn?

LucySoto. Bai.

Bea. Ziur??

LucySoto. Zure lagunari bueltatu nion.

LucySoto. Minutu bat daukat mugitu.

Bea. Titiak erakutsi behar dizkizut ezta?

LucySoto. Bai. Biak.[]

Bea. Ya ta ezta?

LucySoto. Ok.

Bea. Bultatuko didazu msn mesedez?

Maiatzean, LucySoto nickaren atzeko pertsona atxilotu egin zuten, Bea eta beste biktima batzuen salaketari esker. M.A.S.Q zen, limarra (Peru), 32 urtekoa eta leporatzen zaio pasahitzak lapurtu izana, derrigortzeak eta sexu-gehiegikeriak egin izana. Operazioko iturrien arabera, ustezko erasotzaileak 8 eta 14 urte arteko nesken 71 helbide elektroniko zituen gordeta eta bakoitzaren pasahitza. Biktimetako zortzi adingabe espainiarrak dira, nahiz eta Poliziaren Ikerketa Teknologikoko Brigadak bost aurkitu dituen oraingoz. M.A.S.Qek gutxienez 86 bideo grabatzea lortu zuen, nerabeak jarrera erotikoa zirela. Bere pertsonaiaren errealismoa areagotzeko, bere elkarrizketak bideo batekin sinkronizatzen zituen; bertan, neska adingabe bat ikusten zen ordenagailuaren aurrean idazten, web cam baten aurrean balego bezala: neskatoei sinestarazten zien beraien adineko neska batekin ari zirela hizketan. Eta guardia jaisten zuten.

Beste LucySoto asko daude. Udan, Mossos d'Esquadrek David M. F. atxilotu zuten, 21 urteko valentziarra, eta Maximo G. G., 41 urteko asturiarra, adingabeen irudi pornografikoak lortzeko haurrarena egin izana leporatuta. Kasu hauek etengabe errepikatzen dira.

El País - 2007ko azaroak 25

